



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021ko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

EPAIMAHAIAREN ZK.:4 - 5
KALIFIKAZIOA



DEITURAK

IZENA

NANa/A

NTa

Erantzun zuzen bakoitzagatik 0,4 puntu gehituko dira. Erantzun oker bakoitzagatik 0,1 puntu kenduko dira. Bi markatuz gero, galdera ez da puntuatuko

1. BILATZAILEen adibideak

- ☐ Google Chrome, Internet Explorer eta Mozilla Firefox
- ☐ LAN, MAN ETA WAN
- ☐ Gmail, Outlook eta Yahoo Mail
- ☐ Google, Yahoo eta Bing

2. Zer egiten du ordenagailu batean CPUak edo mikroprozesadoreak?

- ☐ Ordenagailuak lan egiteko erabiltzen dituen programak eta datuak biltegitratzen ditu
- ☐ Jarraibideen operazio-kodeak deskodetzen ditu eta eragiketa aritmetikoak eta logikoak egiten ditu.
- ☐ Informazioa modu masiboan eta ez-aldakorrean biltegitratzen du.
- ☐ Dokumentuak, argazkiak, audioak eta bideoak sortu eta editatzeko erabiltzen da, baita Interneten eta abarretan sartzeko ere

3. Ordenagailuko programak eta datuak biltegitratzen ditu; atzipen azkarreko aldi baterako memoria da

- ☐ CDa eta DVDa
- ☐ USB memoria
- ☐ Disko gogorra
- ☐ RAM memoria

4. Monitorea, proiektagailua, inprimagailua, bozinak. Zer dira?

- ☐ Prozesatzeko gailuak
- ☐ Biltegitratzeko gailuak

- ☐ Sarrerako gailuak
- ☐ Irteerako gailuak

5. Sistema bitarra honako hauek osatzen dute:

- ☐ Ez da existitzen halako sistemarik.
- ☐ 4 sinbolo.
- ☐ 2 sinbolo.
- ☐ 8 sinbolo.

6. ASCII kodea, zer da informatikan?:

- ☐ Ez da existitzen halako koderik.
- ☐ Ordenagailu bateko mikro kopurua irudikatzeko balio du.
- ☐ Sistema bat da, zeinetan karaktere bakoitzari 0tik 552 bitarteko zenbaki bat ematen zaion.
- ☐ Sistema bat da eta balio du jakiteko zer bytek irudikatzen duen ASCII taulako 256 karakteretako bakoitza.

7. Ordenagailu bateko memoria nagusia mota honetakoa da:

- ☐ ROMa
- ☐ BIOSa
- ☐ RAMa
- ☐ CMOSa

8. Adierazi ezazu irteerako periferikoen multzo zuzena:

- ☐ Sagua, teklatua, monitorea
- ☐ Inprimagailua, monitorea
- ☐ Barra-kodeen irakurgailua, inprimagailua
- ☐ Arkatz optikoa, eskanerra

9. Ordenagailu batek izan ditzake izen berbera (izena+luzapena) duten bi fitxategi?

- ☐ Ez, inoiz ez.
- ☐ Bai, baina soilik unitate desberdinetan badaude.
- ☐ Bai, baina erroko direktorioan badaude biak.
- ☐ Bai, baina soilik direktorio edo karpeta desberdinetan badaude.

10. Esan ondoko aukeretatik zein den egokia fitxategi bat ezabatzeko:

- ☐ Fitxategia hautatu eta, ondoren, Editatu menua -> Kopiatu
- ☐ Fitxategia hautatu eta, ondoren, Editatu menua -> Itsatsi
- ☐ Fitxategia hautatu eta, ondoren, Testuinguruko menua -> Ezabatu
- ☐ Aurreko bat ere ez.



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021ko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

11. Nire PC-tik karpeta batean sartu gara eta haren edukia honela ageri zaigu:

Nombre	Tamaño	Tipo	Fecha de modificación
Descomprimidos		Carpeta de archivos	01/03/2009 10:58
Ficheros_comprimir		Carpeta de archivos	01/03/2009 11:16
Carta asistente.doc	20 KB	Documento de Micr...	15/12/2008 12:36
Cartas individuales.doc	24 KB	Documento de Micr...	15/12/2008 12:35
Datos_Alumnos.doc	27 KB	Documento de Micr...	15/12/2008 13:20
Datos-Alumnos.doc	27 KB	Documento de Micr...	15/12/2008 13:17
Datos-Alumnos.zip	6 KB	Archivo WinZip	27/02/2009 10:27
ej_respeto.doc	69 KB	Documento de Microsoft Word	2008 8:21
Ejercicios de compresores de archivos.doc	23 KB	Documento de Micr...	01/03/2009 10:57
El respeto.doc	122 KB	Documento de Micr...	12/12/2008 17:41
Hielo.doc	61 KB	Documento de Micr...	10/12/2008 19:02
textos_Lorca.zip	16 KB	Archivo WinZip	27/02/2009 10:26

Ikusi aukera "erabiltzen" ari gara

- ☐ Mosaikoa.
- ☐ Zerrenda.
- ☐ Xehetasunak.
- ☐ Ikonoak.

12. a1:b5 barrutian gelaxkatako bakoitzak 1 balioa badu, zein izanen litzateke d7 gelaxkan sartu dugun "= suma (a1:b5) / suma (a1:a3)" formularen emaitza?

- ☐ 30
- ☐ 3,33
- ☐ 3
- ☐ 0,3

13. Laneko liburu bat bilatzen ari gara eta ez dakigu zein den bere izena, "Bilatu" tresnan zer sartuko dugu?:

- ☐ *.xlt
- ☐ *.xlp
- ☐ *.xls

☐ *.xlx

14. Kalkulu-orri bateko a1 gelaxkak 10,20 balioa badu eta a2 gelaxkan "= si (a1>=10; "gai";"ez gai") formula idazten badugu, a2 gelaxkan sartutako funtzioak zer balio emanen du?

- ☐ Ez gai
- ☐ Gai
- ☐ 10,20
- ☐ Akatsa izan da

15. Hurrengo koadroan ageri dira 3 egunean zenbat bidaiari izan diren. Kalkulatu nahi dut egun bakoitzeko diru-sarrerak zenbatekoak izan diren.

	A	B	C	D
1				
2	Viajeros	Dia 1	Dia 2	Dia 3
3		6	7	8
4				
5	Precio Billete	12 €		
6				
7				
8	Ingresos diarios	=		

Zer adierazpen jarriko dut

B8-n geroago adierazpen hori C8 eta D8 gelaxketan kopiatzean balio zuzenak izan ditzadan?

- ☐ B3*B5
- ☐ B3*C5
- ☐ B3*\$B\$5
- ☐ B\$3*B5

16. Langileen taula batean jarri nahi dugu zer langile den erretzaile. Nolakoa izanen da "Erretzailea" eremua?

- ☐ Testua.
- ☐ bai/ez.
- ☐ Zenbakizkoa.
- ☐ Memoa.

17. Ondoko balio hauetako zein da baliozko IP helbidea?:

- ☐ 193.127.127.2
- ☐ 123.4.5.1.89
- ☐ 199.234.2211
- ☐ 145.267.167.49

18. Outlook-eko "Bidalitako elementuak" karpetan daude:

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021ko DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

- ☐ Bidali diren fitxategi erantsiak.
- ☐ Bidali diren irudiak.
- ☐ Bidali diren mezuak.
- ☐ Ez dago karpeta hori.

19. URL helbide bat http-z hasten bada, esan nahi du:

- ☐ Gaztelaniazko web-orrietan sartu nahi dela.
- ☐ Web-orrietan sartzeko protokoloa erabiltzen ari dela.
- ☐ Konexio segurua egingen dela.
- ☐ Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

20. Delitua da posta elektronikoa igortzea bankuko datuak eskuratzeko bankuak igorritako posta elektronikoa dela itxuratuz. Zer izen ematen zaio horri?:

- ☐ Pharming-a.
- ☐ Phishing-a.
- ☐ Dialers-a.
- ☐ Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

21. NTFS fitxategi sistema:

- ☐ Windowsen fitxategi sistema da, FAT baino bigunagoa eta ez hain segurua. Ezin da inoiz berreskuratu.
- ☐ Windowsen fitxategi sistema da, FAT baino sendoagoa eta seguruagoa. Wordeko dokumentuak soilik.
- ☐ Linuxen gehien erabiltzen den fitxategi sistema da.
- ☐ Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

22. Zer esan nahi du "Plug and Play" teknologiak?:

- ☐ Gailu bat ordenagailuan instalatzean, kontrolatzaileak (driver) eskuz instalatu behar ditugu.
- ☐ Gailu bat ordenagailuan instalatzean, sistema eragileak ezagutu eta automatikoki konfiguratuko du.
- ☐ Sistema eragileak erabiltzailearendako beste aplikazio batzuk gehitzen dituela.
- ☐ Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

23. Worden, elkarriketa-koadro batean aukera bat ageri da, gainerakoekin alderaturik kolorez arinagoa dena. Honek esan nahi du:

- ☐ Aukera hori une horretan gutxien gomendatzen dena dela.
- ☐ Aukera hori une horretan gomendagarriena dela.
- ☐ Aukera hori lehenetsitakoa dela.
- ☐ Hautatutako aukera ez dagoela erabilgarri une honetan.

24. Wordeko hurrengo testuari dagokionez...

ERRESPETUA Esan nahi du besteak baloratzea, haien autoritatea onartzea eta haien duintasuna aintzat hartzea. Errespetua beti hartzen da egia aintzat; ez du inola ere gezurra onartzen, eta kalumnia eta engainua arbuiatzen ditu.

Errespetuak tratu atsegina eta laburra eskatzen du; errespetua giza harremanen, komunitate-bizitzaren, talde-lanaren, ezkontza-bizitzaren eta pertsonen arteko edozein harremanen funtsa da. Errespetua gardentasunaren bermea da.

Esan ezazu lehen paragrafoko koska zer motatakoa den:

- ☐ Ez du koskarik.
- ☐ Lehen lerrokoa.
- ☐ Frantsesa.
- ☐ Paragrafoaren gainerakoa.

25. Access-eko hautaketa-kontsulta batean, noiz lortuko dira emaitza modura erregistro gehiago?: irizpideak "y"-ren bidez edo "o"-ren bidez lotzen ditugunean?

- ☐ "y"-ren bidez lotzen ditugunean
- ☐ "o"-ren bidez lotzen ditugunean
- ☐ Erregistro kopuru bera lortuko dugu beti bi kasuetan.
- ☐ Ezin ditu 2 irizpide ezarri kontsulta bakarrean.